

# ELEPIKA

ERROBIKO EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN FESTIBALA  
LE FESTIVAL DE LA LANGUE ET DE LA CULTURE BASQUE  
DU TERRITOIRE ERROBI

2018KO APIRILAREN 18TIK MAIATZAREN 5ERA // DU 18 AVRIL AU 5 MAI 2018



Communauté  
D'AGGLOMERATION  
**PAYS BASQUE**  
**EUSKAL**  
HIRIGUNE  
Elkargoa

# ELEPIKA : ETA ORAIN EUSKARAZ BIZI BAGINE ? ET SI ON VIVAIT EN EUSKARA ?

Festibalaren hirugarren edizioaren kari, Euskal Hirigune Elkargoko euskara eta kultur zuzendaritzek eta Itsasu, Kanbo, Basusarri eta Uztaritzeko liburutegi / mediatekek euskal hitzunei euskara baliatzeko guneak eskaini nahi dizkiete, gune horietan euskarak lasai har dezan arnas, erabile- ra espazioak ukan ditzan, euskal sorkuntza artistikoa hedatuz, partekatuz, biziz.

Elepika, euskararekiko dugun atxiki- mendua, bete-betean bizitzeko ala deskubritzeko momentua da. Herritar oro- ri begira sortu eta proposatu gertakariak eskura ukaiteko momentua : antzerki ema- naldi, antzerki-irakurketa, zirku-antzerkia, Sarrionandiari dedikatu gaualdia, musika, film bikoizketa tailerra, hitzaldia, telebis- ta platoa, kolegioen arteko « booktrailer » lehiaketa... euskarak baditu hamaika aur- pegi ! Beraz festibal on deneri eta ez duda, euskaraz goza !

Avec la troisième édition d'Elepika, les di- rections politique linguistique et culture de la Communauté d'Agglomération Pays Basque et les bibliothèques / mé- diathèques d'Ixassou, Cambo-les-Bains, Bassussarry et Ustaritz ont pour objectifs d'offrir aux bascophones des espaces dé- diés à la pratique de l'euskara et de diffu- ser la création artistique euskaldun. Ces trois semaines de programmation cultu- relle offrent à l'euskara des espaces où la langue peut s'épanouir, souffler, respirer, en investissant des espaces d'usage.

ELEPIKA, c'est avant tout un moment pour vivre pleinement son attachement à l'euskara ou pour le découvrir. Un mo- ment de partage autour d'événements tout public créés et proposés en langue basque : théâtre, lecture, cirque, soirées thématiques, concerts, atelier de forma- tion, conférence, plateau télé, concours de « booktrailer » inter-collèges... en bref, mille et une manière de vivre en euskara ! Nous vous souhaitons donc à toutes et à tous un bon festival... en euskara !

## Beñat ARRABIT,

Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakariordea,  
Hizkuntz politikaren karguduna

Vice-Président de la Communauté d'Agglomération  
Pays Basque, en charge de la Politique linguistique

## Bruno CARRERE,

Euskal Hirigune Elkargoko Kontseilari delegatua,  
kultur partaidetzak, irakaskuntza artistikoa  
eta kultur ondarearen arduraduna

Conseiller délégué de la Communauté d'Aggloméra-  
tion en charge des partenariats culturels, de l'ensei-  
gnement artistique et du patrimoine culturel

## MEDIATEKEN HITZA

## LA PAROLE AUX MÉDIATHÈQUES

Har itzazu Errobiko lau mediateka-liburutegi, bildu euskara ardatz duen egitasmo baten inguruan, gehitu tokiko kalitatezko sorkuntza artistiko aberatsak, ongi nahasi eta hemen duzu Elepika festibala, ez ohiko animazioz osatu koktela, euskaraz jantzita ! Euskararen alde dugun engaiamenduaren isla da : euskarak lekua badu gure mediateka eta liburutegietan, erregulariki aberasten ari den euskal funtsaren bidez, eta urte osoan zehar antolatzen ditugun animazioen bidez. Hemen, euskaraz irakurtzen, mintzatzen, libertitzen eta bizitzen da.

Prenez quatre médiathèques et bibliothèques du territoire Errobi ; unissez-les autour d'un même projet dont le fil conducteur est l'euskara ; ajoutez-y des créations artistiques locales riches et de qualité ; mélangez le tout et vous obtenez le festival Elepika, cocktail d'animations originales et variées en euskara ! C'est l'illustration de notre engagement en faveur de l'euskara : l'euskara a sa place dans nos médiathèques, avec un fonds basque qui s'enrichit régulièrement, et de nombreuses animations tout au long de l'année. Ici, on lit, on parle, on s'amuse et on vit en basque.

**Itsasu, Kanbo, Uztaritze eta Basusarriko mediateka eta liburutegiak**

**Les médiathèques et bibliothèques d'Itsassou, Cambo-les-Bains, Ustaritz et Bassussary**





## EGITARUA PROGRAMME

### APIRILAK 18 AVRIL

## ILARGI ARRANTZA

Txontxongioloak  
Marionnettes

« Ilargi Arrantza » Banakike konpainiak sortu txontxongilo ikusgarri bat da, Maika Etxekopar eta Battitt Halsouetek eskainia. Itsas izar batek zeruan dauden bere ahizpak ezagutzera joateko bidea egiten du. Ibilbidetan zehar pertsonaia ezberdinak ezagutuko ditu, itsas azpikoak, lurrekoak eta izaera anitz eta indartsuak dituzten zerukoak.

La «pêche à la lune» est un spectacle de marionnettes de la compagnie Banakike avec Maika Etxekopar et Battitt Halsouet. Une étoile de mer voudrait rejoindre ses sœurs du ciel. Dans son voyage elle fait la connaissance de plusieurs personnages sous-marins, terrestres et célestes hauts en couleurs...



Itsasuko liburutegia / Bibliothèque d'Ixassou



16:30



4-8 urte / ans



60 mn

Sarrera librea. Ondotik krakada eskainia.  
Entrée libre. Goûter offert à l'issu du spectacle.

### APIRILAK 19 AVRIL

## OROITZEN NAIZENO

Irakurketa antzeztua  
Lecture théâtralisée

Zer da zahartzaroan memoriak ihes egiten duelarik gelditzen dena ? Bi ahotsez Maddi Zubeldiak eta Bernadette Luro Iratzokik eritasuna eta zahartzearen gaia esploratzen dute irakurketa antzeztuaren bitartez, Zugarramurdiko Agurtzane Andueza artistaren musika eta bideoez lagundurik.

Que reste-t-il lorsqu'en vieillissant nous perdons la mémoire ? Lecture théâtralisée de Maddi Zubeldia et Bernadette Luro avec accompagnement musical et vidéo de l'artiste de Zugarramurdi, Agurtzane Andueza, sur le thème de la vieillesse et de la maladie d'Alzheimer.



Kanboko mediateka  
Médiathèque de Cambo-les-Bains



20:30

Sarrera librea. Entrée libre.

Argazkia / Photo : Amaia Jorajuria



APIRILAK 20 AVRIL

## SARRIONANDIA GAUALDIA

Soirée consacrée à Sarrionandia

Joseba Sarrionandia, hemen eta han dokumentala Uztaritzeko mediatekan eskainiko da, Peru Magdalena zuzendariarekin solastatzeko aukerarekin. Iurretako euskal idazlearen bizitzari eta obrari buruzko dokumentala da, Sarrionandiaren hitzez gain, bere hurbilekoen eta artisten hitzak biltzen dituen lana. Hemen eta han kokatzen da filma. Euskal Herrian eta Kuban, alegia. Dokumentalaz gain, kantuek eta bertsoek gaualdia osatuko dute Maitena Beheran, Patxi Amulet eta Miren Artetxerekin.

Le documentaire Joseba Sarrionandia, hemen eta han (43 mn) sera présenté à la médiathèque d'Ustaritz en présence du réalisateur Peru Magdalena. Il retrace la vie et l'œuvre de Sarrionandia à travers son propre témoignage ainsi que celui de ses proches et de divers artistes. La soirée se poursuivra entre chants et bertsu, en présence de Maitena Beheran, Patxi Amulet, Miren Artetxe.



Uztaritzeko mediateka / Médiathèque d'Ustaritz  
20:30

SARRERA LIBREA. ENTRÉE LIBRE.



APIRILAK 21 AVRIL

## ENE KANTAK DANTZAN

Kantua  
Chant

Ene Kantak taldea osatzen duten kideek, dantzagarriak, berriak eta haurrentzako egokiak diren kantuek sortzen dituzte. Kantu bakoitzeko bideo bat ekoizten dute koreografia batekin, ttikienek dantzatzeko gisan.

Etor zaitezte kantatzera eta dantzatzera!

Les membres du groupe Ene Kantak proposent des chansons dansantes, novatrices et adaptées aux enfants.

Chaque chanson s'accompagne d'une chorégraphie filmée pour que vous aussi vous puissiez chanter et danser en euskara !



Uztaritzeko mediateka / Médiathèque d'Ustaritz



11:00



2-9 urte / ans

SARRERA LIBREA. ENTRÉE LIBRE.



# APIRILAK 21 AVRIL

## JENDEAK ILDOKA ANTZERKI TALDEA




Antzerkia - Irakurketa  
Théâtre - lecture

Daniel Landarten Jendeak (Elkar, 2017) liburu berritik hartutako bederetzi kondakizunen bidez, antzerki tropak XX. mendeko bigarren zatiko Ipar Euskal Herriko laborari mundura eramaiten gaitu. Tokiko biziaren potretak iragan hurbileko giroa sentiarazten duena.

**Kontakizunen idazlea eta taldearen laguntzailea:**  
*Daniel Landart. Irakurleak eta jokariak: Bernadette Luro, Eliane Mendiboure, Peio Berhokoirigoin, Jon Itçaina, Armand Jaunarena eta Pierre Larre.*

Neuf récits tirés du dernier livre publié par Daniel Landart Jendeak (édition Elkar, 2017) sont mis en scène pour nous plonger dans le monde rural du Pays Basque Nord de la deuxième moitié du XXe siècle. Des portraits de la vie courante évocateurs, qui témoignent d'une époque.

**Auteur des récits et metteur en-scène :** Daniel Landart  
**Lecteurs et comédiens :** Bernadette Luro, Eliane Mendiboure, Peio Berhokoirigoin, Jon Itçaina, Armand Jaunarena et Pierre Larre.

 Itsasuko liburutegia / Bibliothèque d'Ixassou  
 18:00  
 70 mn


SARRERA LIBREA. ENTRÉE LIBRE.




# APIRILAK 25 AVRIL

## IPUINAK TITIKA RECALT

Conteur  
Ipuin kontaketa

 Basusarriko liburutegia  
Bibliothèque de Bassussarry

 9:30 & 11:00

 4-8 urte / ans

Eskolentzat. Pour les scolaires.

# APIRILAK 26 AVRIL


## FILM BIKOIZKETA TAILERRA BINAHI AGENTZIA

### ATELIER DE DOUBLAGE DE FILM


AGENCE BINAHI

Binahi casting eta figurazio agentziako profesionalek tailerra eskainiko dute film baten bikoizketa nola egiten den irakasteko.

Les professionnels de l'agence de casting et de figuration Binahi proposent un atelier qui vous permettra de connaître les coulisses des doublages de films.

 Kanboko mediateka  
Médiathèque de Cambo-les-Bains

 14:30 eskolendako / pour les scolaires

 19:30 publikoari idekia / ouvert au public

 Izena eman / sur réservation : 05 53 93 50 70

# APIRILAK 27 AVRIL

## EKIZA + MURSEGO

Kontzertua  
Concert

Jurgi Ekiza Willis Drummond rock taldeko kantari eta gitarra-jolea da. 2016an, bere bakarkako lehen lana bideratu zuen EKIZA izenarekin (bH036-LP, Bidehuts) eta honi oihartzun egiten dion zuzeneko disko bat ere argitaratu zuen (2016/IX/04, Amanita studio, I.O). Folk, rock, post-rock, estilo ezberdinak nahasten ditu bere kanta intimoak beztitzeko. Zuzeneko saio ikusgarrietan, Ekizak musika tresna guziak bere baitatik kudeatzen ditu, bat bateko grabazioaren bidez beharriak sortuz eta guztiak uztartuz, kontzertu liluragarriak eskainiz.

Jurgi Ekiza est le guitariste et chanteur du groupe Willis Drummond. En 2016, il publie son premier album solo (bH036-LP, bidehuts). Depuis, EKIZA propose des concerts intimistes et envoûtants, en publiant même un album live début 2017 (2016/IX/04 Amanita studio I.O).



Argazkia / Photo : Amaia Oca

📍 Kanboko mediateka  
Médiathèque de Cambo-les-Bains

🕒 20:30

SARRERA LIBREA. ENTRÉE LIBRE.

Mursego saguzarra da portugesez. Eta izen horren gibelean da Maite Arroita Jauregi. Maitek txeloa, pedal loop stationa, panderoa, txaloak, inprobisazioa, ahotsa eta hamaika tresna erabiltzen ditu. Euskal musika talde askotan parte hartu ondotik (Anari, Lisabö, Xabier Montoia, etab.), bere bakarkako proiektua bultzatu zuen 2009an grabatutako **Bat** (1) diskoarekin. Bere musikak bilakaera nabarmena izan du soinuan urteetan zehar, esperimentaziotik kantu-formatura hurbilduz. Pop estilokoa : rocka, abangoardia, klasikoa eta folka dira iturburua.

Mursego (Maite Arroitajauregi) est une chanteuse au style folk et pop. Musicienne polyvalente (violoncelle, pédale loop station, pandero, flute, ukulele...) elle s'est lancée en solo en 2009 avec son premier album **Bat** (1), après avoir accompagné de nombreux groupes (Anari, Lisabö, Xabier Montoia, etc.).



Argazkia / Photo : Victor Iriarte

APIRILAK 28 AVRIL

## ZUEK CIE ROUGE ELEA KONPAINIA

Zine-Kontzertua  
Ciné -Concert

Gure arbasoek merezi duten omenaldia, gure gurasoei gorazarre... familia memorian egin-dako zoom-a. Kontzertu, zinema eta objektu teatroaren artean kokatzen den ikusgarria da Zuek. Bere unibertso horretan jasoko gaituen pertsonaia musikari eta soinu sortzaile bat da, proiektatzen diren filmetako heroi anonimoztat konpositore. Super 8an egin irudiak bata bestearen ondotik heldu dira, eta 70. hamarkadan murgiltzen gira, gurea izan daitekeen iragan baten xerka...

Un hommage émouvant à nos ancêtres, nos parents... Un spectacle à mi-chemin entre le concert, le cinéma et le théâtre d'objets. Le musicien est un créateur sonore, compositeur pour les héros anonymes de ces films qu'il nous projette.


Les images super 8 défilent et nous nous évadons dans les années 70, un passé qui pourrait être le nôtre...



Kanboko mediateka  
Médiathèque de Cambo-les-Bains



11:00  
SARRERA LIBREA. ENTRÉE LIBRE.



Argazkia / Photo : Laurent Gauthier

MAIATZAK 3 MAI 2018

## ZUZENEAN ZURE ESKU EMANKIZUNA

Zuzeneko emankizuna Kanalduden  
Émission en direct sur Kanaldude

*Mediateketan euskarari hats eman* izendatutako emankizuna Kanalduderekin partaidetzan antolatuko da. Ostegun arratsero, Kanaldude telebistak herritar, elkarte ala beste eragileei zuzenezko emankizun bat sortzeko eta animatzeko aukera eskaintzen die. Aldi huntan, Uztaritzeko mediatekatik euskaraz noski eta zuzenean !

L'émission intitulée *Mediateketan euskarari hats eman* est organisée en partenariat avec Kanaldude. Tous les jeudis soirs, la web tv offre la possibilité aux citoyen(ne)s, associations et autres organismes d'élaborer et animer leur propre émission en direct. Ce jeudi 3 mai, retrouvez-nous en direct d'Ustaritz, en euskara évidemment !



Uztaritzeko mediateka / Médiathèque d'Ustaritz



19:00





MAIATZAK 3 MAI 2018

## ZAZPI SENIDEKO

LE PETIT THÉÂTRE DE PAIN / AXUT !  
ARTEDRAMA

Antzerkia  
Théâtre

📍 Lapurdi gela, uztaritze / Salle Lapurdi, Ustaritz  
🕒 20:30  
👤 +12 urte / ans

Sarrera librea / Entrée libre  
Izena eman / Sur réservation  
[mediatheque@ustaritz.fr](mailto:mediatheque@ustaritz.fr) / 05 59 93 17 75

Anaitasunarena, txikitatik eraikitako laberintoa da, ihesbiderik gabekoa, lotura definitibo bat. Odolekoak ala biziak eskainitakoak, senideak norbanakoa osatzen du. Baina nola aritu anaia, ahizpa, neba edo arreba ebatsia izan zaigunean? Presondegiak, auto istripuak edo gaixotasunak bete ezinezko hutsunea sentiarazten duenean, nola dirau gurea dugun GU horrek bizirik? Bi aktore. Bi anai. Eta zazpi istorio Ximun eta Manex Fuchs-ek antzerkira ekarriak.

La fraternité est un labyrinthe construit dans l'enfance, sans issue, un lien définitif. Frère de sang ou cadeau de la vie, cette relation accomplit l'individu. Mais comment réagir quand le frangin ou la frangine nous a été volé ? Quand la prison, l'accident de voiture ou la maladie imposent un inassouvable manque, comment continuer de vivre ce NOUS qui est le nôtre ? Deux acteurs, deux frères. Et sept histoires portées à la scène par Ximun et Manex Fuchs.



MAIATZAK 4 MAI 2018

## BOOKTRAILER SARI BANAKETA

REMISE DES PRIX DU CONCOURS DE BOOKTRAILER

Elepika festivalaren kari 2. booktrailer lehiaketa bat antolatua da lurraldeko kolegioentzat, Aldudarrak Bideo elkarte eta L' Aiglon zinegelarekin partaidetzan. Booktrailer bat liburuak aurkezteko egiten den bideo labur bat da, filmeak aurkezten dituzten « trailer » delakoen gisara. Hunek liburua aurkeztu eta irakurlearen irakurtzeko gogoak piztea du helburu. Aitzinetik, publikoak bideoak ikusi eta bozkatzeko ahalko du kanaldude.eus webgunean.

Pour la deuxième année consécutive, un concours inter-collèges de booktrailers a été organisé en partenariat avec Aldudarrak Bideo et le Cinéma L' Aiglon dans le cadre du festival Elepika. À l'image d'une bande annonce de film, un booktrailer est une vidéo courte présentant un livre. Par la vidéo, l'objectif est de donner au lecteur l'envie de lire un livre. En amont de la remise des prix, le public pourra visionner les trailers et voter directement sur le site internet kanaldude.eus.

### Parte hartzaileak:

*Kanboko Errobi eta Xalbador ikastetxeak, Uztaritzeko Sanfrantses Xabier ikastetxea*

Kanboko L' Aiglon Zinema  
Cinéma L' Aiglon de Cambo-les-Bains  
14:00



MAIATZAK 5 MAI 2018

## IRAKURRIZ SHAKTI OLAIZOLA

Zirko-antzerkia  
Cirque - Théâtre

Irakurtzen ari den neska baten mundu bitxi batean murgiltzen gara. Pasarte desberdinak dituen historioko batetara eramaten gaitu, orimenez, aurkikuntzaz, erreflexuz, ametsez betetakoak. Egiazko bidaia proposatzen digu, nun ekintzak eta egunerokotasuneko objektuak, mugimendua bihurtzen diren, ahotsa, dantza eta kontorsioak lagundurik.

Une femme fait la lecture et nous entraîne dans un monde étrange. On découvre à travers les différents chapitres, une histoire pleine de souvenirs, de découvertes, de réflexions et de rêves... Un voyage initiatique dans lequel les actions et objets du quotidien construisent le mouvement qui passe par la voix, la recherche d'équilibre, la danse et la contorsion.

Uztaritzeko mediateka / Médiathèque d'Ustaritz  
11:00

Sarrera librea. Entrée libre.



## ERRESERBAK / RÉSERVATIONS :

• Itsasuko liburutegia -  
Bibliothèque d'Itxassou :  
05 59 29 75 36

• Kanboko mediateka -  
Mediathèque de Cambo-les-Bains :  
05 59 93 50 70

• Uztaritzeko mediateka -  
Mediathèque d'Ustaritz :  
05 59 93 17 75

Basusarriko Les mots s'animent liburutegia  
Bibliothèque les mots s'animent de Bassussarry :  
05 59 43 16 57

---

## ANTOLATZAILEAK / ORGANISATEURS :



## LAGUNTZAILEAK / PARTENAIRES :



Cinéma l'Aiglon  
Cambo les Bains





Communauté  
D'AGGLOMERATION  
**PAYS BASQUE**  
**EUSKAL**  
HIRIGUNE  
Elkargoa

[WWW.COMMUNAUTE-PAYSBASQUE.FR](http://WWW.COMMUNAUTE-PAYSBASQUE.FR)